



ERANSKINA

FORU ARAU AURREPROIEKTUA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA ALDATZEKO MARTXOAREN 27KO 10/2019 FORU ARAUAREN ONDORIOAK ZEHAZTEN DITUENA

ZIOEN AZALPENA

Auzitegi Gorenaren 2018ko urriaren 3ko 1462/2018 Epaiak legezko doktrina gisa ezarri zuen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita zeudela Gizarte Segurantzatik jasotako amatasun prestazio publiko jakin batzuk.

Auzitegi Gorenaren epai horren ondorioz, eta bai etorkizunari begira bai iraganean sortutako zerga egitateei dagokienez zer aukera zegoen ikusita, Arabako Batzar Nagusiek erabaki zuten Gizarte Segurantzaren legeria orokorrean araututako amatasun eta aitatasun prestazioen salbuespen kasuak zabaltzea, amatasunak babes berezia merezi duelako eta garrantzi handia duelako. Arautze berri hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzeko martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauan jaso zen.

Gainera, foru arau horrek ezarri zuen araututakoaren zati batek atzeraeragina izango zuela 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako ekitaldiei dagokienez, baldin preskribatuta ez bazeuden.

Justizia, ekitate eta, batez ere, berdintasun arrazoiak direla eta, zehaztu beharra dago pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzeko martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauak ezarritako atzeraeraginak barnean hartu behar dituela zerga horren pean dauden guztiak, kontuan izan gabe haiengan eragina duten administrazio egintzak administrazio bidean irmoak diren ala ez.

Artikulu bakarra. Aldatzea pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzen duen martxoaren 27ko 10/2019 Foru Araua.

Beste lerroalde bat, bigarrena, gehitzen zaio pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzen duen martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauaren azken xedapenetatik lehenengoari. Gaur egun dagoen testua lehenengo lerroaldea izango da, eta hona hemen gehituko den testua:

“Aurreko lerroaldean ezarritako atzeraeragina, han jasotako kasuetarako, aplikatzekoa izango zaie pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren pean daudenei, nahiz eta eragiten dieten administrazio egintzak irmoak izan administrazio bidean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren eraginpean dauden zergadunek eskaera egin beharko diote Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.



Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta han bertan adierazitako ondorioak sortuko ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.